

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Bizilagun batek dio auzoa zikin dagoela: txakurrek kaka egiten dute Wenceslao Orbeako lorategian, lorategia abandonatuta dago, arratoiak daude inguruan... Eskatzen dute auzoa txukuntzeko orokorrean.	Arratoiak: Desratizazioaren arduradunari pasatu zitzaion abisua eta arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak hartu zituen. Garbiketari dagokionez, urrian hidro-makina bat egon da auzoak poliki-poliki garbitzen.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatu du behin Bustinduitarren kaleko obrak amaitutakoan, berriz ere jartzeko mugikortasun mugatua dutenentzako aparkalekua.	2 aparkaleku pintatu behar dira inguru horretan.
Obrak/Hirigintza	Bizilagun batek Tiburtzio Anitua 18 ko pegorarako sarbidea hobetzeko eskatu du. Sarbidea ez da ona, eta eskailerak ditu bi aldeetan.	Berriki egin dira lanak, eskabide honi erantzuteko xedez.
Zerbitzuak	Karlos Elgezuako biztanle batek eskertu egin du baranda bat jarri izana. Altzairu herdoilgaitzezkoa da, baina zaharra pintatu gabe dago.	Lan-agindua egin zen Karlos Elgezua 3 zenbakiko barandak txukuntzeko. Lanak 2025/03/17an amaitu dira.
Zerbitzuak	Pertsona berberak eskatu du sasiak garbitzeko Karlos Elgezuatik pasarela alderantz. Era berean, adierazi du Ziriako Agirreko plazoleta inguruan dagoen iturria zikin dagoela.	Inguru hori azpikontratatu enpresa batek garbitzen du. Lehenengo buelta uda hasieran egin zen, eta berriz ere pasatuko da azaroan zehar.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 29 zenbakiaren aurreko edukiontziak arriskutsu daude jarrita. Zaborra botatzeko, hormaren kontra joan behar da, eta sarbidea oso zaila da. Mankomunitateari eskatu diote arazoa konpontzeko.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari, kexa kontuan hartu eta soluzioa emateko. MANKOMUNITATEAREN ERANTZUNZA: Eragozpenak eragin ditzakeen gauza bakarra da beirazko edukiontziaren ondoko pibotea, hortik pasatzen baita jendea... Bestela, badago tokirik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Udaltzaingoa	Herritar bat kexu da uso asko daudelako Tiburtzio Anitua 21 zenbakian eta gizon batek jaten ematen dielako. Soluzioak eskatzen ditu.	Informazio-oharrak jarri ziren atarian, eta bi higiezinaren administrazioekin berba egin zen.
Zerbitzuak	Tiburtzio Anituako pertsona berberak dio 21 eta 22 zenbakien arteko pasabidearen argiak ez duela funtzionatzen.	Lan-agindua eman zen eta lanak 2024/12/17an amaitu ziren.
Zerbitzuak	Pertsona bat kexu da Tiburtzio Anitua 23 zenbakiko frontoian dagoen parkeak ez duela mantenimendurik. Eta, kexu da, baita ere, leku berean dagoen iturriak ez duela funtzionatzen.	Haur-parkearen mantentze-lana hilero egiten da; daukagun azken txostena 03/27koa da. Kexa zikinkeria- eta abandonu-egoeratik izan zen batez ere, eta, beraz, Mankomunitatera bideratu zen 03/19an. Iturriaren gaiari dagokionez, lan-agindua egin da iturria konpontzeko (420/2025).
Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 29ra iritsi aurretik, beste edukiontzi batzuk daude sarbide eta erabilera zaila dutenak.	Abisua eman zitzaion Mankomunitateari, kexa kontuan hartu eta soluzioa emateko. MANKOMUNITATEAREN ERANTZUNA: Zikinkeriaz ari da. 2025eko urtarrilean hidro-makina erabili da T. Anituan (2025/01/02tik 2025/01/10era) eta lanak 2024/11/30ean hasi zituen.
Zerbitzuak	Egoitzaren errotondaren ondoko paperontzian jendeak etxeko zaborra botatzen du. Lehen latak botatzen zituzten, eta orain poltsa handiak. Bestalde, horma batek lirdinga du.	Azkenaldian arazo hori ikusten ari gara eta paperontziren bat ere kendu da, halakorik ez egiteko. Saiatzen gara era horretako jokaerak kontrolatzen, baina zaila da hori egiten duen pertsona ezustean harrapatzea. Amaña 2-4-6 zenbakien atzealdeko hormari dagokionez, garbitu egin da 2025eko udaren ostean. Lanak azpikontratatuak enpresa batek egin zituen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Hirigintza	Bustinduitarren kaleko goialdean bizi den pertsona bat kexu da irisgarritasuna txarra delako Tiburtzio Anituatik Bustinduitarren kaleraino eta Asola Igartzaraino.	Martxan daude konpontzeko lanak.
Udaltzaingoa	Auzozainaren figura errekuaratzea eskatzen dute.	Hasita daude horretarako izapideak. Laster hasiko dira lanean.
Hirigintza	Amaña kalean bizi den pertsona batek kalearen irisgarritasun txarrari buruz hitz egin du. Arrapalak behar dituzte.	Proiektua kontratatu dugu irisgarritasuna hobetzeko.
Zerbitzuak	Pertsona bera kexu da Mankomunitateak gutxi garbitzen duelako; eskatzen dio Udalari garbitzeko 9 zenbakian dagoen horma.	Garbiketaren gaia: Kexa bidali zitzaion Mankomunitateari kontuan izan dezaten. Hormari dagokionez, 2025eko irailean garbitu da. Lan horiek azpikontrataturako enpresa batek egin ditu.
Obrak	Bizilagun batek galdetu du Bustinduitarren obrei buruz: noiz hasiko diren, aparkalekuak kenduko diren...	Martxan daude eta aurreikusita dago abenduaren erdialdean amaitzea. Ez da aparkalu-plazarik galduko.
Zerbitzuak	Bizilagun batek ALFAko usainei buruzko kexa errepikatu du.	Ingurumen Sailak espediente ireki dio enpresari.
Hirigintza	Bizilagun horrek berak esan du aparkaleku gehiago behar direla.	Lanean dihardugu El Corte Inglesko aparkalekuak berreskuratzeko, inguruan aparkaleku gehiago egon dadin. Dena dela, Torrekuan eta LIDL supermerkatuko goialdean, aparkaleku asko daude erabil daitezkeenak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Tiburtzio Anitua 31 zenbakiko bizilagun batek eskatu du begiratzeko euste-hormaren eta saihesbidearen artean dauden arbola batzuei. Halaber, eskatu du gasolindegia berriaren kartela berrikusteko, argiagatik eta dagoen tximistorratzagatik. Azkenik, esan du enbor bat dagoela ibaian, Eibar-Ermua muga inguruan.	Lan-agindu bat egin zen eta adar arriskutsuak kendu ziren. Aurrekontuen zain gaude, hura kentzea aztertu/baloratzeko.
Zerbitzuak	Karlos Elgezua 9 zenbakiko bizilagun batek eskatu du lursail batzuk garbitzeko. Gainera, esan du liztor asiarren habia bat dagoela. Azkenik, kexu da ez dagoelako kale-garbitzailerik.	Lursailen garbiketaren gaiari dagokionez: inguru hori azpikontratatu enpresa batek garbitzen du. Lehenengo buelta uda hasieran egin zen, eta berriz ere pasatuko da azaroan zehar.
Zerbitzuak	Bizilagun batek produktu irristagaitz bat eskatu du Arregieta 3 eta 7an. Gainera, dorreetako parkean pergola bat dago ura parkera jaustea eragiten duena; gero ur hori ez da iragazten eta lirdinga sortzen da. Azkenik, galdetu du ea aukerarik dagoen parkearen zati bat estaltzeko.	Kutxatilen tratamendu irristagaitza egiten ari da poliki-poliki, Amañako kutxatila barne. Baten bat geratuko da egiteko, baina materiala eskatuta dago tratamendua guztiei eman ahal izateko. Lirdingaren gaiari dagokionez: Abisua eman zitzaion Mankomunitatari, eta 04/02an jakinarazi ziguten Tiburtzio Anituako parkea presiopeko urarekin garbitu zutela.
Zerbitzuak	Amañako pasealekuan, Azkena tabernaren aurrealdeko mikroamentua apurtzen ari da.	Dilatazio-junturagatik gertatzen da hori. Auzoko azken bileratik pare bat aldiz konpondu da, baina, hala ere, lan-agindua eman da gaur egun (10/09) egon daitezkeen kalteak berrikusi eta konpontzeko. Dilatazio-juntura denez, aldian-aldian konpondu behar da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du parkeak garbitu eta mantentzeko: Tarte tabernako parkean baranda bat dago zinta batekin, denbora luzea daramana.	Ikuskapena egin da eta barandak behar bezala daude. Ikusten den gauza bakarra da telefonikako armairu bat dagoela, atea irekita duena, eta ezin dela itxi. Konpontzen ez dela ikusita, armairuaren atea torlojuz lotu da, gutxienez irekita egon ez dadin. Seguruenik, zerbitzuan ez dagoen armairu bat izango da. Mantentze-lanei dagokienez, aldian behin egiten dira. Kontu gehiago izan beharko litzateke txakurrak ez sartzeko, jardinak hondatzen dituzte-eta.
Obrak	Bizilagun berak galdetu du ea planik dagoen auzoko parkeren bat estaltzeko.	
Udaltzaingoa	Udaltzaingoari eskatzen dio ez aparkatzeko zamalanetarako guneetan.	Inguru horretan ibiltzen diren udaltzainekin hitz egin zen, halakorik berriz ez egiteko.
Udaltzaingoa	Inguru horretan bizi den pertsona bat kexu da aparkaleku gutxi dagoelako Wenceslao Orbean. Komentatu du kotxe batzuk denbora luzez egoten direla aparkatuta.	Udaltzaingoak kontrolak egin ohi ditu, denbora luzez aparkatzen duten kotxeak saihesteko. Badakigu zaila dela aparkatzea, eta saiatzeko gara isunik ez jartzen, betiere ez bada zerbait exajeratua, edo salaketaren bat ez badago.
Obrak	Txakurren ileapaindegia parean, espaloi zati bat kendu eta aparkaleku bat jar liteke.	Kontuan hartu da iradokizuna, baina ez dago aurreikusita espaloia aldatzea.
Udaltzaingoa	Jakinarazi dute liztor asiarren habia bat dagoela arbola batean, Karlos Elegezua kaleko 9 zenbakiaren eta Amañako ikastetxeko patioaren arteko lursail batean. Jasota geratu da, eta horren abisua emango da.	Egin zen dagoeneko horren inguruko txostena, Debemeni pasatu eta haiek kentzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Hirigintza	Bizilagun batek galdetu du ea nola doan “unibertsitateak” tren-geltokiko irisgarritasun-plana.	Orak 2026ko urte hasieran hasiko dira. Lanak Eusko Trenbide Sareak egingo ditu: igogailu bat jarriko da Torrekua kaletik tren-nasa bateraino eta pasealekuraino, eta beste igogailu bat pasealekutik beste nasaraino. Gainera, geltokia hobetu eta handitu egingo da.
Zerbitzuak	Pertsona batek galdetu du ea zenbat kale-garbitzaile dauden auzoan. Haren ustez, gutxi dira.	Mankomunitatearen erantzuna: Amañan pertsona bat dago T. Anitua-Bustindui-Karlos Elgezua eta Ziriako Agirre egiten dituenak. Beste langile batek Amaña zaharra-Wenceslao Orbea eta Karlos Elegezuako goialdea egiten du. Bi gunetan dago banatuta.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio Wenceslao Orbea 12 zenbakian edukiontzi batek hondatuta daukala pedala.	Bere garaian errebisatu zen eta konpondu egin zen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Amaña 19/11/2024

Saila Laburpena

Zerbitzuak	Bizilagun berberak dio inguru horretan dagoen igogailua zikina dagoela eta garbiketa sakona behar duela, eta zoru egokiago bat igogailurako. Gainera, botoi batzuek ez dute funtzionatzen. Erantzuna: Bi igogailuak berritzek aukera aztertzen ari gara.	Bi igogailuak erreformatzeko aukera ikertzen gabiz.
Hirigintza	Corte Ingleseko bihurgunean autobuek espaloian sartzen dira, errepidea oso estua baita. Gainera, eskatzen dute berdeguneak sortzea ospitale inguruan.	Lan hori 2026an egin behar dugu, beste hobekuntza-lan batzuekin batera.